

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak I+G+B proiektuetan gazte tituludunak kontratatzeko laguntza-eskaera guztiei erantzungo die

Xede horretarako, diru-laguntzen deialdian 564.000 euro gehiago jarri ditu, 833.080 eurokoa zena hasieran

Asteartea, 2016.eko azaroak 15

I+G+B proiektuetan gazteak ikerlari eta teknologiako langile modura [kontratatzeko laguntzen](#) deialdian aurkeztutako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzungo die Nafarroako Gobernuak. Horretarako, ekainean argitaratutako deialdian 564.000 euro [gehiago](#) jarri ditu 2016rako 833.080 euroko kreditu batekin; beraz, % 67ko igoera izan da.



Laguntzak dira, unibertsitateko edo Lanbide Heziketako goi-mailako titulazioa duten gazteak ikerlari eta teknologiako langile modura kontratatzeko.

2016ko irailaren 15ean eskaerak aurkezteko epea amaitu zen, 92 erregistratu ziren, eta haietatik oraingoz 17 baliogabetu edo baztertu egin dira baldintzak ez betetzeagatik. % 70 inguru ETEetatik datoz (62) eta % 11 enpresa handietatik (10). Gainerakoak, teknologia-zentro, ikerketa-sozietate, unibertsitate eta sozietate publikoetakoak dira. Deialdiak aurrekontuan aldaketak egiteko aukera jasotzen zuen iritsitako eskaeren arabera.

Laguntzak dira, unibertsitateko edo Lanbide Heziketako goi-mailako titulazioa duten gazteak ikerlari eta teknologiako langile modura kontratatzeko; Nafarroan dauden enpresek, teknologia-zentroek, ikerketa-erakundeek, unibertsitateek eta sozietate publikoek garatutako I+G+B proiektuetan lan egiteko, hain zuzen.

Haien helburua da, kalitatezko enpleguaren sorrera erraztea, berrikuntza sustatzea Nafarroako enpresa-sareko lehiakortasuna areagotzeko, eta talentu gaztearen garapena nahiz perfektionamendua bultzatzea Foru Komunitaterako sektore estrategikoetan ikerketa eta espezializazioko jarduerak eginez, esaterako: energia berriztagarriak, nekazaritza-elikagaiak, biomedikuntza, fabrikazio aurreratua (robotika, gauzen Interneta eta sensorizazioa), eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT).

Industriako doktoregaiak, irekita

Gogoratuko denez, ia helburu bereberekin baina kualifikazio gehigarri batekin, Departamentuak beste deialdi bat sustatu du ere, eta haren bidez Foru Komunitateko I+G+B indartu nahi da. Nafarroako ezagutzako enpresek nahiz erakundeek [industriako doktoregaiak kontratatzeko laguntzak](#) dira; horrenbestez, "talentuaren harrobia" prestatuko da eta Nafarroako berrikuntza-sistemako eragile estrategikoen beharrak aintzat hartuko ditu. Aurkezteko epea azaroaren 22an amaituko da.

Zehazki, bere plantillan lanaldi osoko kontratuen bidez ikerlariak sartzen dituzten erakundeak babestuko ditu, gutxienez hiru urtez badaude eta 25.000 euroko gutxieneko soldata gordinarekin. Matrikula eta mugikortasuneko gastuak ere ordainduko dira (ostatua, mantenua eta garraioa). Kontzeptu horiengatik, erakundeek 97.2000 eurorainoko laguntzak jaso ahalko dituzten hiru urtetan.

Deialdiak 550.00 euro banatuko ditu urtero 2017, 2018 eta 2019 urteetan; guztira, 1,65 milioi aurreikusten dira.